

# Kudeaketa txostena

**ERAIKI**

**DEZAGUN**



orain da garaia


**LANGILEON**

**EUSKAL HERRIA**



2012ko ekainaren 21 eta 22an • Barañaingo auditorioan • Nafarroa

**ZORZI.**  
biltzar nagusia



## › Kudeaketa txostena K

2012ko ekainaren 21 eta 22an • Barañaingo auditorioan • Nafarroa

# Aurkezpena

Ez da erraza azken lau urteetan sindikatuaren jarduera izan dena txosten batean laburbiltzea eta hitz gutxitan baloratzea. Urte oso bereziak izan dira, gogorrak eta larriak langileontzat. Gertakari garrantzitsu asko bizi izan ditugu eta urrats esanguratsuak eman ditugu. Krisia izan da gehien entzun eta erabili dugun hitza, baina ez da bakarria izan. Konponbide demokratikoa, aldaketa politiko eta soziala, independentismoaren eraberritzea edota euskal sindikal-gintzaren bategitea, greba orokorra eta langileen borroka mintzagai izan dira euskal langileen artean.

Gertakari guzti horiek zuzenean bizi izan ditugu eta gu geu izan gara protagonistak hainbat kasuetan. Ez ditugu beraz kudeaketa txosten honetan guztiak kontatuko. Gure asmoa LABek urte hauetan Euskal Herrian jokaturako paperari buruzko balorazio xume bat egitea da.

Kudeaketa txosten hau izango da ekainaren 21 eta 22an burutuko dugun Biltzar Nagusiari sarrera emango diona. Ohiko Biltzarra da, jakina denez. Lau urte beteta derrigor burutu behar duguna gure estrategia erabaki berriekin eguneratu ahal izateko. Horrela da bai, baina argi dago Biltzar honek esangura berezia izango duela gure ibilbidean.

Aldaketa sakonak ekarriko dituen garaia bizitzen ari gara, okertzeko beldurrik gabe esaten dugu urte hauek erabakigarriak izango direla guztiontzat gaur arte ezagutu dugun eredu aldatzen ari direlako. Ezer ez da berdin izango etorkizun ertain eta luzean. Ez lan harremanetan, ez eredu sozialean, ez sistema finantzioan, ezta marko juridiko eta politikoan ere.

Motzean gauzak zenbat aldatzen ari diren ikusten gara jada. Gauzak asko aldatzen ari dira eta aldaketa garai honetan LABen borroka izango dena erabakiko duen Biltzarra burutzerara goaz. Hori da kongresu honetan egingo dugun ariketa garrantzitsua.

Kudeaketa txosten hau izango delarik biltzarreko eztabaidei sarbide emango diona, hartuko ditugun erabakiek oinarri sendoak dituztela adieraztea da txostenarekin adierazi nahi izan duguna.

## Biltzar Nagusien arteko aldiaren gako nagusiak

### **Botere ekonomikoa jaun eta jabe**

Hasiera batean krisi finantzio bat zena krisi ekonomiko larri eta orokorra bilakatu zen berehala. Eta benetako errealitatea nagusituz, krisiaren dimensio politikoa bere gordintasun osoan agertu da ondoren. Gobernuak errealitatea ukatzeko eta ezkutatzeko ahaleginetan jarraitzen badute ere, ekonomiaren kontrola guztiz galdu dute eta ez dute inolako gaitasunik egoerari irtenbide bat emateko. Egiten ari diren politikek egoera okertu besterik ez dute egiten eta badakite horrela dela. Baina egoerari buelta emateko proiektu alternatiboak behar dira eta horrelakorik ez da sekulan gobernu kapitalista hauen eskutik etorriko.

Sistema finantzioaren eskuetan dagoen botere ekonomikoa da guztion etorkizunaz erabakitzen ari dena. Gaur nagusi den klase politikoaren funtzio eta eginkizun bakarria sistema kapitalista betikotzeko behar beharrezkoa diren neurri eta erreforma guztiak burutzea da.

Sistema finantzioaren gaineko kontrola handitu eta zorrotzu behar zela adierazi zuten krisiaren hasieran. Gaur arte hartu dituzten neurri guzti guztiak finantza sistemaren boterea eta negozioa handitzeko izan dira. Ez dago gobernuen kontra agertu den banketxe edo enpresa multinazionalen jaberik. Hori da daturik adierazgarriena. Gobernuak egindako kritikak, egoera tenkatuz gehiago eskatzeko izan dira. Eta alternantzia politikoaren legeak gobernu aldaketa ekarri duenean gogo onez jaso dituzte kargua utzitako agintariak euren administrazio kontseiluetan.

## > **Kudeaketa txostena** K

Kapitalismoa berrantolatzea eta berregituratzea ekarriko duen krisi sistemiko baten aurrean gaude eta erabakiak non eta nola hartzen diren delarik gakoa, boterea guztiz kontzentratua dago mundu mailako elite finantziero-ekonomiko baten eskuetan.

Proiektu kapitalistaren bortizkeria bere gordintasun osoan agerian geratzea izan da azken lau urte hauetako ezaugarri nagusia. Kapitalak ez du mugarik onartzen bere garapena eta etorkizuna jokoan dagoenean eta nahi beste bitarteko ditu bere interesak nagusitzeko. Krisiaren kudeaketa guztiz antidemokratikoa izaten ari da, hori izan da azken lau urteetan gertatu dena azaltzen duen klabe nagusia.

### **Prekarietatea, bazterketa soziala eta pobrezia, euskal langileriaren errealitatea**

Murrizketak eta erreformak bata bestearen atzetik inposatu dizkigute. Honetan ere bilakaera guk iragarri bezalakoa izan da: ajustea lehenik eta behin, krisiaren kontrako neurriak ondoren eta egiturazko erreformak azkenean. Hartu dituzten neurriak ez dira berriak, doktrina neoliberalak muturrera eramanez hartutakoak direlako. Baina jautzia nabarmena da gaur arteko eredu soziala deuseztatzen duten erreformak egiten diren heinean.

Konstituzio Espainiarraren erreforma, azken lan erreforma eta urratsez urratsez burutzen ari diren zerbitzu publikoen erreformek egiturazko aldaketak ekarriko dituzte eredu sozialari dagokionez Hego Euskal Herrian. Hiru erreformek zuzenean suntsitzen dituzte eskubide sozial eta laboralak. Ez dira neurri ekonomikoak, ezta koiuntura bati lotutako momenturako erabakiak. Erreforma hauei pentsio sistema publikoan egindakoa gehitu behar diegu, pentsio eskubidea indargabetu egiten duelako bete ezinezko baldintzak inposatuz.

Eskubideak indargabetzen dituzten heinean, botere eta instituzio publikoen funtzioa eta papera ere aldatzen dute. Gaur aurrekontuek derrigorrezko mugak dituzte eta zor publikoaren ordainketari lehentasun osoa ematea agindu konstituzionala da. Botere publikoa erretiratu egin da lan mundutik lan eskubideen bilakera enpresari eta langileen esku utziz, baina gauzak ongi lotuak utzi ditu patronalaren mesedetan negoziazio kolektiboaren egitura goitik behera aldatuz.

Zerbitzu publikoetan gertatzen ari denak erakusten du hoberen eredu soziala suntsitzen ari direla Estatuak bere eginkizun sozialak betetzeari uko egiten ari diolako. Aurrekontu legeei lotutako murrizketa kate luzeek zerbitzu publikoaren kontrako eraso orokorra ekarri dute, baina benetako auzia iragarri berri duten erreforman dago, zerbitzu publikoaren sistema baita lege bidez murriztu nahi dutena.

Eskubideak indargabetuz eredu soziala suntsitzea Europa osoan garatzen ari den politika da. Erasoak Ipar Euskal Herrian ere ikusgarriak izan dira azken lau urteetan. Pentsio sistemaren erreforma izan daiteke aipagarriena, baina zerbitzu publikoaren berrantolaketa orokorra burutzen ari dira, eta praktikan herri txiki eta landa guneko zerbitzurik gabe geratzea ekartzen ari da hori, Ipar Euskal Herrian horrek duen eragin zuzenarekin.

Gure eskubideen eta gaur arteko eredu sozialaren kontrako eraso orokorra izatea ekarri du krisi honek beraz. Eta antolatua dela diogu, hau ez delako azken lau urteetako ondorioa ez eta berehalako erabakien emaitza. Atzera begiratuz gero, Europako hainbat itunetan aurkitu ditzakegu politika guzti hauek jasota eta ongi pentsatuta. Kapitalaren betiko eskakizunak dira, proiektu kapitalistaren garapenari lotutakoak beti.

### **Krisiak bete betean harrapatu du Euskal Herria ere**

Sistema kapitalista osoa astintzen ari den krisiak bete betean harrapatu du Euskal Herria ere. Egia da bertako garapen ereduak bere ezaugarri propioak dituela eta espekulazioaren ondoriozko burbuila lehertzeak ez zituela hasiera batean hemen ondorio bortitz berdinak izan. Baina egiturazko arazoa hor dago eta krisiaren dimentsioa ere berdina da.

Baina are gehiago, azken urteetan Euskal Herriko ekonomiaren eta egoera sozialaren bilakaera guztiz ankerra izan da bertako egoera eta baldintza ekonomikoetan oinarritutako bidea ez egitearen ondorioz. Aplikatu diren politikak Estatuetakoa izan dira, ez dugu benetako politika propioirik ikusi ez Gasteizko Gobernuaren aldetik, ez Nafar Gobernuaren aldetik, ezta noski Ipar Euskal Herrian ere. Eskuduntzek ematen duten kudeaketa propioarako aukerak murrizketa politikak aurrera ateratzeko baliatu dituzte, politika hauetan aintzindariak izanik kasu batzuetan.

Instituzio guztietako aurrekontuak murriztu dira, jendartea babesteko eta ekonomia berpizteko gaitasunaren kaltetan. Eta errealitate horri buelta emateko ezinbestekoa den egiturazko erreforma fiskala egitear dago oraindik. Gaur ez da nahikoa neurri fiskalak hartzearekin, aberastasuna benetan banatzea ekarriko duten politika berriak behar dira hor dago-elako krisi honetatik ateratzeko gakoetako bat. Bide hori hartu ezean, egoerak okerrera egiten jarraituko du murrizketa politikak murrizketa gehiago egitea eskatzen duelako eta politika propioak egiteko gaitasuna kentzen dutelako.

Egin diren politika instituzionalek krisia elikatu eta zabaldu dute, atzetik zetozen arazo sozialak neurririk gabe larriz. Prekarietatea, bazterketa soziala eta pobrezia ez dira tamalez egoera berriak, baina benetan onartezina da arazo horiek betikotu eta egiturazkoak egingo dituzten politikak egitea instituzioetatik. LABek hasieratik ukatu du politika hauek direnik egin daitezkeen bakarrak eta horregatik da gertatzen ari dena bereziki latza. Hautu politiko bat da jendartea pobrezia eta prekarietatera kondentatzea gutxi batzuen interesen mesedetan.

## **Aurrera urratsak aldaketa politiko eta sozialerako prozesuan**

Eredu ekonomiko eta sozial berri bat eraikitzea da gaurko egoerari buelta emateko aukera bakarra. Alternatiba hori posiblea da gaurko politikak baztertu, eredu berria eraikitzeko bitartekoak eskuratu eta bide berri bat egiten hasiz gero. Bide propio bat egiteko eskubiderik ez dugu oraindik, ordea.

Gaurko marko juridiko eta politikoen mugak eta ondorioak inoiz ez bezala utzi ditu agerian krisi honek. Euskal herritarroi dagokigu gure etorkizunerako erabakigarriak diren une hauetan zer egin behar den erabakitzea; eta eskubide hori ukatuz lapurtu nahi digute gure indarrean eta borroka gaitasunean oinarritutako eraldaketa prozesua aurrera ateratzea. Gatazka politikoari konponbide demokratikoa emateko prozesu demokratiko bat martxan jartzea izan da urte hauetako gertakari politiko nagusia Euskal Herrian zalantzarik gabe. Euskal herritarren erabakitze eskubidea errespetatuko duen marko demokratikoa eraikitze prozesua izanik, aukera berri bat ireki zaigu euskal langileoi hainbeste borrokatu ditugun aldaketa politikoak lortzeko.

Lan Harremenetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eraikitzerik ez dago marko aldaketarik gabe; euskal ekonomia egituratzeko bitartekorik ez ditugu politika ekonomikoak hemen definitzen eta erabakitzen ez diren bitartean eta gaurko markoak ez du hori ziurtatzen. Aldaketa politikorik gabe ez dago benetako aldaketa sozialik burutzerik, horrela aldarrikatu dugu LABetik azken hamarkadetan eta bere balio osoa ematen diogu krisi testuinguru orokor honetan aldaketa burutzeko prozesua martxan jartzeko egin ahaleginei eta norabide horretan Euskal Herrian eman diren urratsei.

## **Gatazka politiko eta armatua gainditzeko ibilbide orria**

Euskal Herriak gatazkaren konponbide demokratikoari ateak parez pare irekitzeko urrats erabakigarriak eman ditu zazpigarren kongresutik gaur arteko aldirian. Urte askotako borrokaren emaitza izan da. Baita ezker abertzaleak Estatuaren itxikeriaren gainetik inizatiba politikoa anbizio eta erantzukizun politiko osoz hartzeko edukitako gaitasunaren emaitza ere.

Ezker abertzaleak erabaki estrategiko berriak hartu zituen orain hiru urte askapen prozesuaren bilakaerari buruz eta mugimendu independentistaren egoeraren inguruan egin gogoeta sakonaren ondorioz. Gaurko egoera ez demokratikoa konfrontazio demokratikoaren eta indar metaketaren bidez iraultzeko hautua egin genuen, fase berri bati ekinez askapen borrokan. Gure estrategia aldatuz aldatu genuen Euskal Herriko egoera politikoa eta egoera berriak bere emaitzak eman ditu jada.

## › Kudeaketa txostena K

Gernikako Akordioa, Aieteko Konferentzia eta ETA erakundeak borroka armatua betirako uztea gatazka konpontzeko urrats erabakigarriak izan dira. Konponbidea eraikitzeko fasean gaudela eta atzerabuelarik ez duen prozesua burutzen ari garela erakusten duten urratsak guztiak.

Euskal gatazka politiko eta armatua konpontzeko bideak badu bere ibilbide orria, nazioarteko eragile oso esanguratsuen eskutik finkatua, horrek duen garrantziarekin. Hartu dira ere finkatutako bidean aurrera egiteko konpromisoak euskal eragile gehienek aldetik ere, behar beharrezkoak prozesua martxan jartzeko eta ezinbestekoak izango direnak prozesu burura eramateko Estatu bien itxikeriaren eta oztopoen gainetik.

Egoera berriak eta prozesua alde bakarrez martxan jartzeak agerian utzi du gatazka konpontzeko benetako arazoa Estatuak direla. Estatuak ez dutela inolako borondaterik Euskal Herria aitortzeko eta errespetatzeko. Muga hori euskal eragile politiko, sindikal eta sozialen ekimenez eta euskal herritarren babesarekin gainditzeko hautua egin dugularik, gaur gu guztion esku dago konponbide prozesua aurrera ateratzea horretarako konpromiso irmoak hartuz. Oso adierazgarria da 78an Estatuaren erabakietan parte hartu edota babestu zituzten euskal eragileek gaur Euskal Herriak irekitako bidea partekatze erakutsitako konpromiso falta.

## Azken urte lau urteetako interbentzioaren gako nagusiak

### **Aldaketa politiko eta sozialaren aldeko borroka**

2008ko irailean burututako Nazio Biltzarrean finkatu genituen krisiaren aurrean gure interbentzio osoa zuzendu duten oinarri eta ardatz nagusiak. Ezin esan orduan krisiak gaur duen dimentsioa hartuko zuela aurreikusi genuenik, baina argi zegoen hazkunde garaiak bereak emanak zituela eta garai gogorak zetozela langileontzat eta baita sindikatuontzat ere.

Hartu genuen erabaki nagusia gobernuetatik gure aldarrikapenei uko egiteko eta borroka baztertzeko egiten ari ziguten deiari ezezko borobila ematea izan zen. LABek elkarrizketa sozialaren bidea baztertu zuen gobernuak ez zutelako inolako asmorik langileekin eta jendartearekin konpromiso zehatzik hartzeko eta are gutxiago krisiaren aurrean zer egin behar zen sindikatuarekin adosteko. Babesik ez ematea erabaki genuen eta gerora denborak arrazoi osoa eman digu; gobernuak hasiera hasieratik lerrokatu dira kapitalarekin hauen interesak nagusituz gu guztion interesen gainetik.

2008 eta 2009 kurtsoa erabakigarria izan zen gaur arteko erantzun sindikalaren oinarriak jarri zituelako. Iniziatiba nagusia "Lapurrak" kanpaina nazionalarekin euskal langileriari krisiaren aurrean borrokarako deia egitea izan zen. Euskal Herriko txoko guztietara eraman genuen gure salaketa eta mobilizazio soziala sustatzeari ekin genion.

2009ko otsailaren 19an euskal sindikalgintzan zatiketa gaindituz erantzun bateratua antolatzeke egin deia izan zen bigarren inizatiba garrantzitsua. Batasun sindikala eraikitzeke konpromiso argi eta sendoak bereganatzeko prestutasuna adierazi genuen krisi guztiek berekin ekartzen duten langileriaren erasoari aurre egiteke bidea langileriaren indarrak biltzea zela iritzita. Eta ez ginen okertu.

2009ko maiatzaren 21ean burututako greba orokorra izan zen fase honetako aurrera urrats nagusia. Ikaragarria izan zen grebaren deialdiak sindikalgintza abertzalearen kontra ekarri zuen ofentsiba ideologiko, mediatiko eta politikoa. Orduan iragarri eta salatu genuen guztia bete dira ordea. Esan genuen aldaketa politiko eta sozialaren bidea hartzea baztertuz gero langileriaren kontrako eraso neurririk gabekoa izango

zela. Eta esan genuen ere arrazoia edukitzea ez zela nahikoa, indarra behar zela gauzak aldatzeko. Greba honek eman zion hasiera indar metaketan eta mobilizazio sozialean oinarritutako gehiengo sindikalaren bideari.

Mobilizazio bateratu asko egin ditugu baina ez dugu aipatu gabe utzi nahi LABek garatutako mobilizazio eta borroka lerro propioa. Askok izan dira eskualdez eskualde hartutako inizatibak, lekuko egoerak salatzeko eta bereziki zigortuak izan diren eremuetan langileriari ahotsa emateko.

Eta ezin dugu aipatu gabe utzi sektore publikoan ekintza sindikala indartzeko egin dugun ahalegina. Eredu honetan elkarlanak bere bidea egin du eta emankorra izan da hainbat kasutan. Baina azpimarratzekoa da LABek izan duen lidergoa sektore publikoko langileen borroka lan baldintzetan ez ezik, zerbitzuen defentsan kokatzeko. Sektore publikoan egin beharreko borroka balio erantsia duela ulertu dugu betidanik, bakar bakarrik egin dugu urteetan borroka horrela. Baina argi dago bide zuzena hartu genuela.

Erantzunak eta mobilizazioak izan dira azken lau urteetan LABen agenda zuzendu dutenak beraz. Lau greba orokor eta hamaika mobilizazio egin ditugu. Madrilen mobilizatu ginen aurreneko aldiz euskal langileok erabakitzeke dugu esku-bidea aldarrikatzeko. Aldaketa politiko eta sozialak aldarrikatzea izan da mobilizazio guzti haueetan LABen hizpide nagusia eta hau da, gure ustez, Euskal Herriko eragileon artean aurrera atera behar dugun aldaketa prozesuari egin diogun ekarpen nagusia. Baina ez da bakarria izan.

Benetako aldaketa politikoak burutzea prozesu demokratikoaren emaitza izango dela konbentziturik gaude LABetik. Prozesu horretan beharrezkoak diren konpromisoak bereganatu behar ditugu horretarako. Sindikatu bat garen heinean egin behar dugu gainera, euskal langileok garelako aldaketa sozialei bide emango dien aldaketa politikoak lortzea behar dugunok.

LAB Euskal Herrian eta euskal langilearik behar duen aldaketarako prozesu politikoan inplikatzeko prest dagoela adierazi dugu hainbatetan eta VIII Biltzar Nagusiak aurrera urratsa izan behar du norabide horretan. Gure paperari eta gure helburuei eutsiz egingo dugu, ezinbestekoa delako langileon eskubideak eta interesak prozesuaren agendan egotea.

Gogor aritu gara erantzunean gertatzen ari dena onartezina delako, baina horretara mugatu gabe, ez dugu alboratu alternatibaren bidea jorratzeko eskaintzak egitea. Euskal Herriak behar dituen egiturazko aldaketak burutzeko agenda politiko eta sozial konpartitu bat behar dugula aldarrikatu dugu hainbatetan eremu politiko, sindikal eta sozialaren arteko lankidetzak behar beharrezkoa ikusten dugulako, eredu berri bat eraikiko badugu.

Eredu sozioekonomiko berri baten eraikuntzarekin benetako konpromisoak bereganatzea, konpromiso horiek eskatzen dituzten urrats politiko eta sozialak zehaztea, eta eremu ezberdinen arteko lankidetzaren oinarriak finkatzea ezinbesteko aldagaiak dira horrelako bide bat egiteko. Oraindik ez gara eztabaida honetan benetan sartu Euskal Herrian eta hor dago, LABen iritziz, aldaketa prozesua azkartzeko gako nagusia.

## **Euskal sindikalgintzaren bat egitea**

LABen iritziz, krisiaren aurrean euskal gehiengo sindikalak bat egitea eta eredu berri bat aldarrikatzeko krisiaren kontra borroka egiteko benetako eskaintza sindikal bat egitea izan da azken urteetako erabakirik garrantzitsuenak. Erantzun propio bat emanez Euskal Herria subjektu politiko eta sozial bezala indartzea, konfrontaziozko eredu sindikala definitiboki nagusitzea eta langile klasearen interesak Euskal Herriak bere bidea egiteko burutu behar duen prozesu politikoaren agendan kokatzea izan dira egin borrokaren emaitza nagusiak.

Luzea eta emankorra izan da gehiengo sindikalaren dinamika. Eraso nagusiei erantzun indartsuenak eman dizkiogu, kapitalaren jarrera ideologikoki eta zuzenean borrokatu dugu, instituzioei babes soziala kendu diegu egin dituzten politikak guztiz antisozialak direlako. Euskal langileei helburu estrategikoekin borroka egiteko aukera eman diegu, eredu ekonomiko eta sozial berri baten eraikuntza aldarrikatzea izan delako gure erantzunaren ipar orratza. Ez gara egoera salatzera mugatu, alternatibaren bidea jorratzeko aliantza sindikal sendo bat artikulatzea ezinbestekoa da eta hori gehiengo sindikalaren eskutik bakarrik etorriko da Euskal Herrian.

## > **Kudeaketa txostena** K

Eredu ekonomiko eta sozial berri bat eraikitzeke estrategia sindikal oso eta indartsu bat behar da ordea. Erantzunari duen balio eta garrantzia emanez, alternatibaren eraikuntzak inizatiba eta egitismo sindikal argiak edukitzea eskatzen du. Eredu berri bat eraikitzea prozesu politiko eta sozial baten emaitza izango delarik, ezinbestekoa da prozesu horren inguruko gogoeta sakona egitea. Erantzuna antolatzeke ELAK beti aurkitu ditu LABen atek irekiak, ELAren itxia aurkitu dugu sindikalgintza abertzalearen strategiari buruzko gogoeta egitea eskatu dugunean.

2010eko Maiatzaren Lehen bateratuak aliantza sindikalean urrats berriak emateko aukera eta beharra zegoela erakutsi zuen. Orduan egin genuen balorazioan esan genuen mobilizazioen egutegia agortze zantzuak erakusten hasiko zela gehiengo sindikalak bere eskaintzan eta estrategian sakontzen ez bazuen. Aliantza taktiko estrategikoa eraikitzeke egin eskaintzak ez du gaur arte inolako erantzun positiborik jaso. Orduz geroztik gaur arte, aitzakiak nagusi Euskal Herriak behar duen aldaketa politiko eta sozialen prozesuan sindikalgintza abertzaleak estrategia adosteko eztabaidari ihes egiteko.

Langileen eskubideak erasotzeko eta lapurtzeko prestatutako gidoiari aurre egitea izan da gure lan lerro nagusia urte hauetan. Ez ditugu murrizketak, txantaiak, lantokietan enplegua barra barra suntsitzea edota bankeak diru publikoaz laguntzea onartu eta langileak guzti horiek salatzeke erantzuna antolatzeke gai izan gara.

### **Langileen eskubideen aldeko ekintza sindikala**

Erreformatik, kaleratzeak, murrizketak, EEKak... langileen kontrako neurriak gabeko erasoak izan dira lan munduaren bilakera markatu dutenak. Ekintza sindikaleko aldarrikapenak eta lehentasunak momentuko errealtatera egokitu behar izan ditugu baina gure jarrera sindikalari eutsiz beti ere: patronalaren eskakizunei eta asmoei aurre egitea borrokan oinarritutako ekintza sindikalaren bidez.

Enpleguaren defentsa izan da gure ekintza sindikalaren ardatza bai lantokietan baita lantokietatik kanpo ere. Enplegua ziurtatuz krisi egoera honi erantzuten dioten neurriak adosteko prest egon denak negoziatzeko eta akordioetarako prest aurkitu du LAB. Baina salbuespenak besterik ez dira izan.

Lan harremanetarako eredu agortua dagoela esan dugu hainbatetan eta horrela da, eredu berri bat aldarrikatzen dugu eta prest gaude eredu horren eztabaidari ekiteko, baita eredu berri baten eraikuntzan konpromiso argiak bereganatzeko ere. Eztabaida hori egiteko prestasunik ez dugu inondik ikusi patronalaren aldetik. Guztiz agortuta dagoen enpresa eredu bati eusteko eta lan harremanetarako euskal esparruaren kontra aritzeko jarrera da gaur nagusi.

Patronalak krisia bere boterea handitzeko eta gure lan baldintzak okertzeko baliatu nahi izan du hasieratik eta hor ez dago akordioetarako inolako aukerarik. Hor langileen eskubideak defendatzeko konfrontazioa eta borroka dago.

Ezinezkoa dugu hemen egin ditugun borroka guztiak zerrendatu. Batzuk ezagunak izan dira (jantokiak, Gipuzkoako Metala, Konekta edota Koxka). Gehien gehienak ez dute apenas oartzunik izan, ez dute prentsan presentziarik eduki. Borroka guzti hauen emaitzak ezberdinak izan dira baina guzti guztien balioa aldarrikatu nahi dugu gure interbentzioaz egiten dugun balorazio orokorrean, langileen eskubideen defentsan bereganatuko konpromiso sendo honetan dagoelako Euskal Herrian alternatibaren bidea bizirik.

Lan erreformatik testuingurua goitik behera aldatu du. Gaur arte egin dugun greba orokor handienarekin erantzun genion indarberriekin heltzeko lan munduan borroka fase berri bat izango denari. LABetik inizatiba hartu dugu negoziazio kolektiborako euskal esparrua eraikitzeke eta ziurtatzeko.

Erreformatari aurre egiteke negoziazio kolektiborako marko propioa eraiki behar da eta bide horretan ari gara inizatiba hartu eta alternatiba desberdinak poposatzen. EAEn akordio interprofesionala negoziatzeko saiakera egin zen, patronalak hautsi zuen saiakera, eremua blindatzearen truke kontrapartidak atera nahi zituelako.

Sindikatu guztiei gutxienerako adostasun baterako deia luzatu genien eta baita mobilizazioetarako deia ere. Ez da posible izan gutxienerako akordio horretara iristea baina saiakera hori ez da ezerezean geratu, proposamen horrek oraindik badu bidea eta orain urrats berriak emanez kudeaketa horretan ari gara.

Iniziatibak hartzen jarraituko dugu, baina fase honetan gure borroka estrategia eguneratzeak izan behar da gure buru hauste nagusia. Klase sindikalgintzaren kontrako eraso bortitza izaten ari da, langile borroka estrategikoki indargabestu behar duela erabaki du patronalak eta gobernuen laguntza guztia du horretarako. Sindikalgintzaren desprestigioa, borrokaren kriminalizazioa, greba eskubidearen urraketa, errepresio zuzena eta enpresetan militantzia sindikala zigortzea estrategia orokor baten ondorioak dira.

Aspalditik aztertuak eta ezagunak ditugun zailtasunak eta oztopoak biderkatuko egingo dira aurrerantzean. Lau urte hauetan Euskal Herrian zein eredu sindikal nagusitzen zen izan da afera nagusia. Datozen urteetan, kapitalari boterea borrokatzea erabaki duen eredu sindikalaren gaitasuna eta eraginkortasuna da jokoan izango dena.

## **LABen parte hartzea gatazkaren konponbidean**

LAB burutu diren konponbide saiakeratan egon da. Gure esku hartzea eta inplikazioa modu batekoa edo bestekoa izan da, prozesuaren ezaugarrien arabera. Sindikalgintza abertzalea aintzindaria izan zen Lizarra Garaziko akordioak eraikitzeke eta sindikatu guztien arteko akordioak sustatu genituen Loiolako prozesuari auspoa emateko. Gatazkari konponbide demokratiko bat ematea guztion erantzukizuna da eta horretan ez dago aitzaki baliagarririk LABen iritziz.

Lau sindikatu nagusiak parte hartu dugu Aieteko Konferentzian eta presente egon gara berifikazio taldearen bilkuretan. ELA ezik, gehiengo sindikaleko sindikatu guztiak gaude Gernikako Akordioan. Sindikatu gehienek babestu eta sustatu ditugu konponbidearen aldeko mobilizazioak eta akordiorik ez egon arren, hor egon gara Euskal Preso Politikoen eskubideen aldeko mobilizazioetan. Sindikatuon presentzia eta parte hartzea badago konponbide prozesu honetan beraz.

Horrela izanik ere, sindikatuon artean oraindik ez da benetako gogoetarik egon konponbide prozesu honetan gure parte hartzeak izan behar lukeena eta izan daitekeenaren inguruan. LABek norabide honetan iniziatiba sendorik hartu ez izana huts egite bat da, motzean gainditu beharreko huts egitea gure ustetan.

## **LABen esku hartzea nazioartean**

Egungo krisi kapitalistak mundu osoan eragin du, Europar Batasunean bereziki, eta horren ondorioz Europako gobernuak neurri beretsuak hartu dituzte langilearen eta herritar klaseen kontra. Guzti honek agerian utzi du sindikatuen partetik inoiz baino beharrezkoagoa dela nazioarteko erantzun koordinatua Europa eta mundu mailan.

Egoera horretatik nahi baino urrunago gauden arren, krisi honi nazioartean nola erantzuten ari zaion aztertzeke zenbait ekimen egin izan ditugu LABetik: 2011ko iraileko jardunaldia Europako egoera eta erantzun sindikalak aztertuz, 2009ko Europako hauteskundearen harira Europar Batasunaren gaineko jardunaldia, 2012ko otsailean Latinamerikako aldaketa politiko eta sozialerako prozesuen berri eman genuen Euskal Herrian, gaiaren inguruan argitalpen ezberdinak atera izan ditugu nazioarteko idazkaritzaren zein Ipar Hegoaren partetik, FSMko nazioarteko ekimen egunetan parte hartu dugu urtero, e .a.

Zenbait ekimen internazionalista xume baina garrantzitsu burutu izan dugu baita ere, klase sindikatu baten jardunean internazionalismoak tokia izan behar duela uste dugulako. Besteak beste, Greziako langileekin elkartasunez mobilizatu gara behin baino gehiagotan, Andaluziako SAT sindikatua gonbidatu izan dugu jasaten ari diren jazarpena gure Herrian ere sala zezaten, Kolonbiako sindikalistekin elkartasun jardunaldia antolatu genuen, eta palestinar herriarekin zenbait elkartasun ekimen burutu izan ditugu (mobilizazioak, hango sindikalistak gonbidatu ditugu, Israeli boikota aldarrikatuz ehundaka enpresetan ebazpenak onartu dira LABen eskutik, e.a.); jubilatutako eta pentsionisten arlotik Kubarako elkartasun brigada antolatu da berriki, ...

## > Kudeaketa txostena K

Eta urrats berriak eman ditugu Munduko Sindikatuen Federazioan. 35 sindikatuk osatzen duten eta FSM-ko zuzendaritza den Kontseilu Presidentzialerako hautatuak izan gara, Estaturik gabeko nazio bateko kide bakarrak garelarik. Eta Europako Bulegoko Idazkaritzako kideak ere bagara. Metaleko eta Meatzaritzako Nazioarteko Sindikatuen Batasunaren idazkaritza nagusia dauka gure sindikatuak gaur egun, ardua horretatik metaleko sektoreari begira azken urteotan nazioartean zenbait ekimen antolatu ditugularik.

Estaturik gabeko Nazioetako Sindikatuen Plataforman jarraitzen dugu eta azken urteotan koordinatzaile orokorraren ardua izan dugu. Sindikatuak proposatuta 2010ean Plataformako barne araudia onartu zen, nahiz eta momentu honetan Plataforma geldialdi baten dagoen eta aurrera begirako hausnarketa beharrezkoa den.

Bukatzeko, nazioarteko instituzioetan LABek izan behar duen onarpena borrokatzea izan da ireki dugun ildo berria: honela, Europako Parlamentuan GUE/NGL ezkerreko parlamentarien taldeak gonbidatuta bertako mintegi sindikaletan parte hartu dugu lehen aldiz, eta Nazioarteko Lanaren Erakunde (NLE-OIT) gure errekonozimendua eta parte hartze normalizatua borrokatzen ari gara, bertan historikoki pairatu izan dugun bazterketa behingoz gainditzeko asmoz.

Ibilbidea luzearen emaitza izan da LAB nazioarteko eremuetan aitortzea, egin lan guztiak bere uzta ematen hasiak direla ikusi dugu urte hauetan. Erronka, gure presentzia eta parte hartzea ekimen bateratuak sustatzeko baliatzea izango da orain, hasieran esan dugunez, behar beharrezkoa ikusten dugulako nazioarteko aliantza sendoekin erantzun koordinatuak ematea.

### **Bukatzeko**

Azken lau urteetan euskal sindikalgintzak orokorrean eta LABek bereziki egin duenaren balioa aldarrikatzea eta ibilbide guzti honen zama bizkar gainean hartu duzuen kide guztien lanaren garrantzia azpimarratzea da kudeaketa txosten honen arrazoi nagusia.

Sindikalgintza abertzalearen gaurko erronka nagusia guztiz estrategikoa da. Euskal Herrian abiatu den fase berrian gure papera izango dena eztabaidatu eta finkatu behar dugu. Luzerako ikuspegiarekin egin beharreko ariketa da, hautu estrategiko sendoak egitea eskatzen duen momentua bizi dugulako. Txosten honetan jaso ditugu gure ustez eztabaida horretan jaso behar diren klabe nagusiak.

Ez ditugu hutsuneak, huts egiteak eta gaizki egindakoak kontutan hartu gabe utzi nahi. Horiek dira gure barne eztabaidetan eta bilkuretan gehien aztertzen ditugunak eta ponentziak egiteko gogoetetan bereziki lantzen saiatu garenak. Biltzar Nagusiari dagokio egin ditugun proposamenek arazoak konpontzeko aukerarik ematen duten eztabaidatzea.

## **Proiektuaren hedapena eta antolakuntza garapena**

Ez da gure estiloa autokritikarik gabeko baloraziorik egitea gure interbentzioa eta bilakaera aztertzen dugunean. Kasu honetan ere, jarrera kritikoak bere lekua izango du eta atal honetan izango du batez ere.

LAB geroz eta leku gehiagoetara iristen den sindikatua da. Horrela adierazten dute afiliazio eta hauteskunde sindikaletako datuak. Lau urte hauetan 4100 afiliatuko igoera izan dugu, gure afiliatu berriak gazteagoak dira eta emakumeen portzentajea %40ra gerturatu dugu, pixkanaka pauso sendoak emanez. Sindikatua indartu dugu azken lau urteetan eta sindikatuaren interbentzioa indartsuago izan da. Ez da ohizko dinamika lau greba orokor burutzea eta mobilizazio lerro iraunkorra garatzea, lantokietako ekintza sindikalari eutsiz eta igoera berriek eskatzen duen barne eztabaidak eginez.

Sindikatuak ahalegin berezia egin behar izan du azken urteetan eta ahalegin horren ezaugarri nagusia militantziaren eta kidegoaren konpromisoan eta dedikazioan oinarritu dela da. Konpromisoa eta dedikazioa funtsezkoa da, hori gabe ez dago aurrera egiterik. LABek azterketa hori ongi baino hobere gainditu du. Baina ditugun erronka guztiei aurre egiteko gai izango bagara sakonean begiratu behar diegu sindikatuaren egiturei eta antolakun-tza bitartekoei.

Krisiak gure lehentasunak berraztertzea eta gure agenda berrantolatzea eskatu du. Horrela egitea erabaki genuen, behar beharrezkoa ikusi genuelako gainera zetorkigun erasoari aurre egiteari lehentasun osoa ematea. Hainbat egitasmo bidean geratzea suposatzen du horrek, baina zalantzarik gabe, azken lau urteetan kaltetua aterata dena sindikatua- ren barne funtzionamenduari buruzko gogoeta izan da.

Gauzak horrela, are eta balio handiagoa ematen diogu urte hauetan LABek erakutsi duen barne koexioari eta militantzia guztiak egin duen ahaleginari. Baina ezin da hori gure arazoak izkutatzeko arrazoia izan, beharrezkoak ditugun hobekuntzak aztertu eta erabaki behar dira.

Azken biltzarrean esan genuen LAB eraberritu behar genuela gure borrokari indar gehiagoz segida emateko. Borroka indartu dugu baina ez dugu sindikatuaren eraberritzeari buruzko gogoetari behar den lekua ematerik izan. Aurreikusitak genituen hainbat eztabaida egiteke daude oraindik eta egitasmo organizatibo bat baino gehiago geratu da bidean. Ondorioz, hainbat arazo ez ditugu konpondu, eta nabarmenagoak egin dira sindikatuaren dinamikaren ondorioz.

Afiliazioaren parte hartzea sustatzea, interbentzioa sendotzeko egiturek eztabaidetan eta erabakietan parte hartzeko ditugun bideak hobetzea, sail sindikalak indartzeko benetako prozesu bat burutzea, sindikatuaren hedatzeko estrategia ekintza sindikalean benetan uztartzea, gure lana errazteko eta gure lanari etekin gehiago ateratzeko guztiok dugun prestakuntza beharri modu zuzen eta eraginkor batean asetzea... sindikatuaren indarra biderkatzeko gako nagusia gure antolakuntza ereduari dago eta eztabaida guzti hauek egin behar ditugu ereduaren eraberrituko badugu.

Sindikatuaren eraberritzea prozesu baten emaitza izango da, eta urratsez urrats egin behar den prozesu horrek bere lekua izan behar du gure datoen hilabete eta urteetako agendan. Kurtso honen hasieran jarri genuen martxan "eraberritze urratsa" izendatu dugun prozesua. Hasierako urrats bat besterik ez da izan. Gure lanaren antolaketa eta gure barne funtzionamendua hobetzeko aurreneko erabakiak hartzeko balio izan du baina lerro iraunkorra bilakatu behar dugu.

## **Azpimarratzeko hainbat elementu**

**Borroka kutxa.** Eztabaida luze eta gatazkatsuen emaitza izan zen orain bi urte borroka kutxa sortzeko erabakia hartzea. Denbora gutxi da guretzat berria den bitarteko honen emaitzak aztertzeko, baina jada esan dezakegu bere erabilera normalizatua izaten ari dela eta oso lagungarria izaten ari dela geroz eta ugariagoak diren isunen kasuan.

**Adineko pertsonen eta pentsionisten arloa sortzea.** Aspalditik pentsatutako egitasmoa zen eta orain hiru urte jarri genuen martxan. Balantzea benetan positiboa izan da emankorra izan delako arloa inizatibei dagokionez, baina bere esangura azpimarratu nahi dugu. Askotan aldarrikatu dugu langileon konpromisoa ez dela adinagatik itzaltzen, ez eta lan munduko epealdia bukatzean amaitzen. Euskal langile guztiak antolatzeko eta borrokatzeko eskaintza bat edukitzea da LABen anbizioa eta urrats garrantzitsua eman dugu arlo hau sortzearekin.

**Egiteke geratu zaizkigun gogoeta nagusiak.** Esan dugunez, hainbat egitasmo geratu zaizkigu bidean sindikatuaren agenda eta lehentasunak berrantolatzearen ondorioz.

Batzuk VII Biltzar Nagusian hartutako konpromiso zehatzak izan ziren, ez ditugu bete eta horrela jasotzen ditugu kudeaketa txosten honetan. Migrazioari buruzko lerro sindikala finkatzeko eztabaida egitea eta gure nazio estrategian sakontzeko eztabaida egitea dira zintzilik geratu zaizkigun bi gogoeta nagusiak.

Beste batzuk urte hauetako dinamika bistan utzitakoei buruzko gogoetak dira. Hauen artean azpimarratzeko da sindikatuak martxan dituen lan lerro espezifikoaren bilakaerari buruzkoa da. Gizon eta emakumeen arteko aukera berdinta-

## ► Kudeaketa txostena K

suna, euskararen normalkuntza, lan osasuna eta ingurumena borroka garrantzitsuak izan dira LAB sindikatuarentzat. Eta horrela izan behar du. Baina ez dugu lortu agendaren berrantolaketan borroka guzti hauei behar duten lekua ematea eta argi dago ez dugula huts egite hori zuzentzeko erabakiak hartzen asmatu. Ekimenak eta iniziatibak ez dira falta izan, idazkaritza bakoitzak bere bidea egin du. Baina borroka fase berri baten aurrean gauden heinean, borroka hauek egiten jarraitzeko erabaki berriak hartu behar ditugu.

Sindikatuaren hedapenaren datuak

### HHSS BILAKAERA 2010-2011

LAB	10/12/31	11/12/31	ALDEA
Araba	386 %10,79	406 %11,33	20 %0,54
Bizkaia	1251 %12,81	1320 %13,53	69 %0,72
Gipuzkoa	1546 %24,74	1676 %26,26	130 %1,52
<b>EAE</b>	<b>3183</b> <b>%16,24</b>	<b>3402</b> <b>%17,25</b>	<b>219</b> <b>%1,01</b>
Nafarroa	826 %12,65	852 %13,05	26 %0,40
<b>Hego EH</b>	<b>4009</b> <b>%15,34</b>	<b>4254</b> <b>%16,20</b>	<b>245</b> <b>%0,86</b>

### BILTZAR NAGUSIEN ARTEKO HHSS BILAKAERA

HERRIALDEA	2008-04-30	2012-04-30
BIZKAIA	1285 % 12,96	1,315 % 13.57
GIPUZKOA	1756 % 26,42	1,689 % 26.32
ARABA	425 % 11,49	400 % 11.33
EAE	3510 % 17,06	3404 17,34
NAFARROA	839 12,79	845 % 12.96
<b>GUZTIRA</b>	<b>% 16,02</b>	<b>% 16.24</b>